


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2012ko apirila

Euskal AEko industri jarduera %9,1 murriztu zen 2012ko apirilean

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2012ko martxoarekin alderatuta %1,5 jaitsi zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2012ko apirilean %9,1 murriztu zen Euskal AEko industria produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2011ko hil beraren aldean. Urtaoren eragina zuzenduta, %1,5 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2012ko martxoarekin alderatuta.

1. grafikoa. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2012ko apirileko indizearen bilakaerak den-denen jaitsierak erakusten ditu, 2011koaren aldean. Energia %14,7 jaitsi da, Ekipo-ondasunak %9,9; Bitarteko ondasunak %8,3, eta Kontsumo-ondasunak %6,1. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %11,2 jaitsi dira eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %4,8.

2012ko apirileko hil arteko aldakuntza, 2012ko martxoaren aldean, ezberdina izan da industri talde handietan. Ekipo-ondasunak %0,7 jaitsi dira, Bitarteko ondasunak %2,2 eta Kontsumo-ondasunak %4,7. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %4,9 eta Kontsumo-ondasun iraunkorrak %3,7. Energia, berriz, %0,1 igo da.

2012ko apirilean eta aurreko urteko hil beraren aldean hazkundera izan duen sektore garrantzitsu bakarra *Elikagaiak, edariak eta tabakoa* izan da, %2,4.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-7,0
09 - Kautxua eta plastikoak	-11,0
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-4,7
13 - Makineria eta tresneria	-3,2
14 - Garraio-materiala	-7,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-5,9
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	2,4
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-16,4

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Material eta Ekipo elektrikoa sektorean urte arteko %16,4ko jaitsiera dago; Kautxu eta plastikoan %11koa eta Garraio materialean %7,1ekoa.

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen apirileko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Bizkaian %11,5 jaitsi da, Gipuzkoan %10,7 eta Araban %1,2. Hil arteko hazkunde-tasak ere negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Bizkaian %2,9 jaitsi da, Gipuzkoan %1,0 eta Araban %0,1, 2012ko martxoaren aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2012 apirila (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	2012Api/2011Api	M(2012Api) / M(2011Api)*	2012Api/2012Mar	2012Mar/2012Ots
Indize orokorra				
Euskal AE	-9,1	-6,0	-1,5	-2,3
Araba/Álava	-1,2	-1,5	-0,1	1,5
Bizkaia	-11,5	-8,5	-2,9	-1,0
Gipuzkoa	-10,7	-5,8	-1,0	-5,5
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-6,1	-3,2	-4,7	4,0
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-11,2	-8,9	-3,7	0,1
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-4,8	-1,7	-4,9	4,9
Ekipo-ondasunak	-9,9	-3,5	-0,7	-4,0
Bitarteko ondasunak	-8,3	-6,5	-2,2	-1,1
Energia	-14,7	-14,6	0,1	-2,4

(*) 2012ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2011ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua